

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### Enplegu publikoaren 2018ko eskaintza

Alkateak, 2018ko uztailaren 28ko ebazpen bidez, hutsik dauden plazei dagokien enplegu publikoaren eskaintza onetsi du. Hona hemen ebazpena hitzez hitz:

Udalbatzak, 2018ko martxoaren 15ean, 2018ko aurrekontuaren langileen plantilla aldatzea onetsi zuen. Horren bidez, adierazten da lanaldi osoko garbitzaile lan kontratudun plaza bat hutsik dagoela, titularrari behin betiko baja eman zaiolako, eta plaza hori lanaldi partzialeko plaza bihurtzen dela.

Aldaketa behin betiko onetsi eta 2018ko ekainaren 6an argitaratu zen ALHAOn (65. zk.).

Bestalde, giza baliabideen beharrak ikusi dira eta horietatik zeintzuk bete beharko diren kanpokoekin.

Era berean, kontuan izan da Enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren Legearen testu bateratua onesten duen urriaren 30eko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 69.2 eta 70.1 artikuluan xedatutakoa. Aurrekoa betez eta bat etorritoki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 91. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 24. artikuluan xedatutakoarekin.

Alkateak hau ebazten du:

LEHENENGOA. 2018ko ekitaldiari dagokion enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Hona hemen xehetasunak:

Lan kontratudunen plantilla:

Lanpostuaren izena: garbitzailea.

Plaza kopurua: 1, txanda irekia.

Lanbide kategoria: Zerbitzu berezietako lanbideetako kidea.

Taldea: E / A. P.

Maila (Udalhitz/Destino): 5/13.

Titulazioa: eskola ziurtagiria edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2.

Derrigortasun data: derrigortasun datarik gabe.

Lantokia: udal bulegoak eta osasun etxea.

Lanaldia: partziala, lanaldiaren ehuneko 20.

BIGARRENA. Bat etorritoki Enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren Legearen testu bateratua onesten duen urriaren 30eko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 70. artikuluan 1 in fine paragrafoan xedatutakoarekin, hautaketa prozesuak deitzeko, gehienez, 9 hilabete izango dira EPE hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Lapuebla de Labarca, 2018ko abuztuaren 3a

*Lehen alkateordea*  
**VÍCTOR ALVARO VICENTE**